

BABESGABETASUNEKO ETA BAZTERKERIAKO EGOERAK BALORAZIOA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Zerbitzuei buruzko informazioa eta nola eskuratu

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzu honek adingabeen **babesgabetasun** arina, ertaina edo larria egoeren **identifikazioa** eta **balorazioa** egiten du ([2.1 fitxa](#)). Babesgabetasuna dagoela ulertuko da gurasoen edo arduradunen aldetik jarrera arduragabeak edo tratu txarrak gertatzen direnean. Zerbitzu honen helburua da:

- Arduragabekeriagatik edo tratu txarreatatik adingabe batek izan dezakeen babesgabetasunari buruzko jakinarazpenak jasotzea.
- Jakinarazpen horretatik abiatuta, balorazio-prozesu bat egiten da egoera egiaztatzeko, larritasun-maila eta lotutako arazoak baloratzeko.
- Azkenik, esku hartzeko beharrak ezartzea, kaltetutako haurraren edo nerabearen ongizatea bermatu ahal izateko.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Zerbitzua **babesgabetasuneko arina, ertaina edo larria egoeran edo abandonatuta egon** daitezkeen **adingabeei** zuzenduta dago.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 urte baino gutxiago izatea.
- Erakunde, profesional edo partikular batek adingabeko pertsona baten babesgabetasun arinaren, ertainaren edo larriaren susmoaren berri ematea.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua ematea **foru aldundien** ardura da.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Babesgabetasuneko eta bazterkeriako egoeren balorazioa Araban](#)
- [Bazterketa egoeraren balorazioa Bizkaian](#)
- [Bazterketa egoeraren balorazioa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)